40 Muestra Internacional de Cine y Mujeres
Zinemaren eta Emakumeen 40. Erakusketa Internazionala

40 Muestra Internacional de Cine y Mujeres de Pamplona (2026)

La Muestra Internacional de Cine y Mujeres de Pamplona organizada por Fundación IPES y Cines GOLEM es la más antigua de estas características en todo el estado. Nació en 1987 y mantiene sus objetivos iniciales: visibilizar y potenciar el liderazgo de las mujeres directoras, realizadoras, guionistas y actrices, programar películas cuyas narrativas se encuentran atravesadas por el género en su amplia diversidad, utilizar el cine como herramienta para la transformación social y difundir otras miradas del mundo frente al relato único, generando relatos alternativos a los establecidos hegemónicamente y valorando miradas artísticas personales y diversas.

Esta muestra sigue siendo necesaria y por ello sigue vigente, con un compromiso firme con la visibilidad y el apoyo de las películas dirigidas por mujeres de diversos orígenes, que nos hablan de mujeres con agencia, delante y detrás de las cámaras, y continúan poniendo los cimientos para la construcción de sociedades justas e igualitarias.

Es el sexto año consecutivo que desde Fundación IPES, hacemos una apuesta por extender la Muestra a otras localidades del territorio foral, contando una vez más con el interés y apoyo del Ayuntamiento de Alsasua y el Ayuntamiento de Tafalla, concretamente desde las Áreas de Igualdad y Cultura.

Este mes de septiembre, tendrán lugar las proyecciones en Tafalla los días 17 y 24 de septiembre, ambas películas fueron estrenos que se proyectaron en junio en la 40 Muestra Internacional de Cine y Mujeres de Pamplona.

Os esperamos en las salas de cine

Iruñeko Zinemaren eta Emakumeen 40. Erakusketa Internazionala (2026)

Iruñeko Zinemaren eta Emakumeen Erakusketa Internazionala IPES Fundazioak eta GOLEM zinemek antolatzen dute, eta ezaugarri hauek dituen Estatu osoko erakusketa zaharrena da. 1987an jaio zen, eta hasieran zituen helburuei eutsi die: emakume zuzendari, errealizadore, gidoilari eta aktoreen lidergoa ikusgai egin eta indartzea, generoak bere aniztasun zabalean zeharkatuta dauden narratibak dituzten filmak programatzea, zinema eraldaketa sozialerako tresna gisa erabiltzea, eta munduaren gaineko beste begirada batzuei zabalkundea ematea kontaketa bakarraren aurrean, modu hegemonikoan ezarritakoen kontaketa alternatiboak sortuz eta begirada artistiko pertsonalak eta askotarikoak baloratuz.

Erakusketa honek beharrezkoa izaten jarraitzen du eta horregatik segitzen du indarrean, hainbat jatorritako emakumeek zuzendutako filmen ikusgaitasun eta babesarekiko konpromiso sendoarekin. Film horiek, kameren aurrean eta atzean, ardura duten emakumeez hitz egiten digute, eta gizarte bidezko eta berdintasunezkoak eraikitzeko oinarriak jartzen jarraitzen dute.

IPES Fundazioak erakusketa foru-lurraldeko beste herri batzuetara hedatzeko apustua egiten duen seigarren urte jarraia da. Hala, beste behin ere, Altsasuko Udalaren eta Tafallako Udalaren interesa eta babesa izan dugu, zehazki, Berdintasuneko eta Kulturako arloena.

Irail honetan, emanaldiak Tafallan egingo dira, hilaren 17an eta 24an. Bi film horiek estreinaldiak izan ziren Iruñeko Zinemaren eta Emakumeen Erakusketa Internazionalaren 40. edizioan.

Zinema-aretoetan egongo gara zuen zain

www.fundacionipes.org/cineymujeres

Tafalla

Septiembre 17-24 Iraila

Jueves 17 de septiembre, 19:30 horas

FANTASY

de Kukla (Eslovenia, Macedonia del norte, 2025, 106')

Premio a la Mejor Película del Festival de Cine de Trieste

Tres amigas de veinte años pasan los días juntas. Las tres son tomboys y rehúsan encajar en el sistema conservador que las rodea. Su mundo se revoluciona cuando conocen a Fantasy, una mujer trans muy segura de sí misma. La cineasta eslovena Kukla debuta con una obra fascinante sobre las complejidades del género y el deseo. Una Euphoria balcánica llena de hits y con un estilo visual que juega con el realismo mágico.

Kukla: Es música y cineasta. En 2014, terminó sus estudios en la Academia de Cine de Liubliana, donde se graduó en Dirección de Cine y Televisión. Su último cortometraje Sisters ganó el Gran Premio del Festival de Clermont-Ferrand y el Premio del Público del Festival de Cine Premiers Plans de Angers. Fantasy es su primer largometraje y ha participado en numerosas residencias, entre ellas La Cinef de Cannes.

Presentación y coloquio posterior.

17

Irailaren 17an, Osteguna,19:30ean

FANTASY

Kuklarena (Eslovenia, Ipar Mazedonia, 2025, 106')

Film onenaren saria, Triesteko Zinemaldian

Hogei urteko hiru lagunek elkarrekin ematen dituzte egunak. Hirurak tomboy dira, eta inguruan duten sistema kontserbadorearekin bat etortzeari uko egiten diote. Beren mundua asaldatu egingo da Fantasy ezagutzean, bere buruaz oso seguru dagoen emakume trans bat. Kukla esloveniar zinemagileak debuta egin du generoaren eta desiraren konplexutasunei buruzko lan liluragarri batekin. Balkanetako Euphoria bat, hit-ez betea eta errealismo magikoarekin jolasten den estilo bisual batekin.

Kukla: Musikaria eta zinemagilea da. 2014an, ikasketak amaitu zituen Ljubljanako Zinema Akademian, eta Zinema eta Telebistako Zuzendaritzako gradua eskuratu zuen. Bere azken film laburrak, Sisters izenekoak, Clermont-Ferrandeko Zinemaldiko Sari Handia eskuratu zuen, eta Angerseko Premiers Plans zinemaldiko publikoaren saria. Fantasy bere lehen film luzea da, eta egonaldi ugaritan parte hartu du, adibidez, Cannesko La Cinefen.

Aurkezpena eta ondorengo solasaldia.

Jueves 24 de septiembre, 19:30 horas

VIVA

de Aina Clotet (España, 2026, 112')

Premio revelación en la Semana de la Crítica del Festival de Cannes

Después de encontrar frente a frente con la muerte, la Nuera de 40 años es consumida por una necesidad urgente de sentirse viva. Se sumerge en relaciones apasionadas con dos hombres muy diferentes, Tom y Max, las naturalezas opuestas de los cuales reflejan su propio conflicto interior. Pero cuando cabe de ellos puede llenar el vacío, la Nuera se ve obligada a enfrentarse a la verdad: tendrá que enfrentarse a un miedo más profundo que la hace pasar hambre por la vida.

Aina Clotet: Barcelona (1982). Actriz, directora y guionista, ganadora del premio a mejor interpretación en el festival de Canneseries 2024 por su papel en Esto no es Suecia, serie de la que es creadora y directora. Ha ganado dos veces la Biznaga de Plata a la mejor actriz en el festival de Málaga (2012 y 2019) y tiene numerosas nominaciones en los Premios Gaudí. Como guionista y directora firma el cortometraje Tiger, y ha coescrito Después también, cortometraje dirigido por Carla Simón. VIVA es su primer largometraje.

Invitada: Olatz Mercader, persona mastectomizada, teticornio e integrante de la Asociación Izan Inurri, que acompaña, y divulga el cáncer desde una perspectiva feminista.

24

Irailaren 24an, Osteguna,19:30ean

VIVA

Aina Clotetena (Espainia, 2026, 112')

Errebelazio saria, Cannesko Zinemaldiko Kritikaren Astea atalean

Heriotzari aurre egin eta gero, Nora, 40 urtekoa, bizirik sentitzeko premia larri batek hartuko du. Oso desberdinak diren bi gizonekin, Tom eta Maxekin, harreman grinatsuetan murgilduko da, eta haien nortasun kontrakoek Noraren barne-gatazka bera islatuko dute. Baina bietako bakar batek ere ez duenean lortzen huts hori betetzea, Norak egiari egin beharko dio aurre: bere bizitzeko irrika bultzatzen duen beldur sakonenari buru egin beharko dio.

Aina Clotet: Bartzelona (1982). Aktorea, zuzendaria eta gidoilaria, antzezpen onenaren saria irabazitakoa Canneseries jaialdian 2024an, Esto no es Suecia lanean jokatutako rolarengatik. Sail horren sortzailea eta zuzendaria da. Bi bider irabazi du aktore onenari emandako Zilarrezko Biznaga saria Malagako jaialdian (2012 eta 2019), eta izendapen ugari ditu Gaudi sarietan. Gidoilari eta zuzendari moduan, Tiger film laburra sinatu du, eta Carla Simónek zuzendutako Después también film laburra idatzi du beste batekin batera. VIVA bere lehen film luzea da.

Gonbidatua: Olatz Mercader, pertsona mastektomizatua, titibakarra eta Izan Inurri Elkarteko kidea. Lagun egiten eta minbiziaren gaineko dibulgazioa egiten aritzen da ikuspuntu feministatik.

Réplica de la Muestra/Erakusketaren erreplika hemen

Ayuntamiento de Tafalla · Tafallako Udala · Área de Igualdad Berdintasun Arloa · Gobierno de Navarra · Nafarroako Gobernua · Agenda 2030 · Instituto Navarro para la Igualdad · Nafarroako Berdintasunerako Institutua

Organizan/Antolatzaileak

golem · Fundación Fundazioa IPES

Todas las proyecciones son en el
CENTRO CULTURAL TAFALLA KULTURGUNEA
Calle Hortanco, s/n, 31300 Tafalla, Navarra. Teléfono: 948 75 59 69

Compra de entradas:
https://es.patronbase.com/_Tafalla/Productions
Precio/Prezioa: 3 €